


UROLAGARAIA




IBILBIDEAK / RECORRIDOS

6

HERRI BARRUKO IBILBIDEA / RUTA URBANA
ZUMARRAGA-URRETXU





UROLAKO BIDE BERDEA
VÍA VERDE DEL UROLA

Urrelur

San Martin de Tours

Iparragirre: Monumentua-Monumento

Urretxu: Udaletxea-Ayuntamiento



Tren geltokia -
Estación de tren



Legazpi dorretxea -
Casa torre de Legazpi



"Lorategi hiria" -
"Ciudad jardín"



Trintxerako parkea - Jasokundeko eliza
Parque de La Trinchera -
Iglesia de la Asunción



Zumarraga:
Udaletxea - Ayuntamiento



Zumarraga - Urretxu



Ibilbide historiko eta monumentala da, iradokitzailea eta oso egokia elkarrekin hazi diren Gipuzkoako bi herri berezi hauek denbora laburrean ezagutzeko. Gure abiapuntu izango den Zumarragako tren geltokitik abiatu eta trenbide azpitik igarotzen den oinezkoentzako lurpeko pasabiderantz jo beharko dugu. Irteeran, eskuinaldetik jarraituz, Legazpi dorretxera iritsiko gara, Miguel López de Legazpiren jaiotetxera; hain zuzen ere, Urdanetaren urratsei jarraiki, 1564. urtean Filipinak kolonizatzeari ekin ziona. Zumarragako herrigunerantz abiatuz gero, gure eskuinetara “Hiri lorategia” ikusiko dugu, 1955eko etxebizitzaren arkitekturaren adibide interesgarria. Aurrez aurre, ildo beretik eraiki ziren Legazpi Etxebizitza Multzoa ikusi ahal izango dugu. La Salle ikastetxe ondotik jaitsi ondoren, Jasokundeko Elizara iritsiko gara laster, eta Zelai-Arizti parketik Euskadi plazara hurbilduko gara. Bertan, estilo neoklasikoko udaletxea dago, inguruan hainbat arkuperekin, eta, erdialdean, Legazpiren eskultura gailentzen da. Hemendik, Soraluze kaletik aurrera eginez, Urola gaineko Areizaga plazara iritsiko gara eta, bertan, eskuinetara, aldapa igotzen hasi aurretik, Areizaga etxe-jauregia



Zumarraga - Urretxu



Itinerario histórico y monumental, sugerente e idóneo para descubrir en poco tiempo dos municipios guipuzcoanos ciertamente singulares, que por azares de la historia han vivido y crecido conurbándose en cercanía íntima. Desde la estación de tren de Zumarraga, nuestro punto de inicio, debemos orientarnos hasta el paso peatonal subterráneo que atraviesa las vías de tren. A su salida, siguiendo a la derecha, llegaremos en breve a la casa torre de Legazpi, solar de Miguel López de Legazpi, que tras los pasos de Urdaneta emprendió la colonización de Filipinas en 1564. De regreso hacia el centro de Zumarraga se abre a nuestra derecha el conjunto “Ciudad Jardín”, interesante ejemplo de arquitectura residencial de 1955, como lo es también, enfrente, el Grupo de Viviendas Legazpi. Tras descender junto al colegio la Salle llegaremos a la Parroquia de la Asunción, y desde el cercano parque Zelai-Arizti, atravesaremos un paso que nos conducirá a la plaza Euskadi, porticada en torno al ayuntamiento de estilo neoclásico, y presidida por la escultura de Legazpi. Desde aquí, y siguiendo por la calle Soraluze llegaremos a la plaza Areizaga, donde a la derecha, justo al comienzo de una pequeña



Trintxerako parkea - Jasokundeko eliza / Parque de La Trinchera - Iglesia de la Asunción

edo “Baroikoa” ere deiturikoa dago, eraikinaren aurrealdean oraindik familia-armarria mantentzen duena. Igoera txiki baten ondoren, Iparragirre kalearen hasiera puntura iritsiko gara, Urretxuko erdi aroko herrigunearen hasierara, hots, Gernikako Arbola kantaren egile eta koblakari ezaguna, Jose Maria Iparragirre, jaio zen etxera (2020. urtean haren jaiotegunaren bigarren mendeurrena ospatzen da). Aurrerago, plaza barruan, Corral-Ipeñarrieta Jauregia dago, egungo udaletxea dena. Gainera, Iparragirren estatua dago Gernikako haritzaren kimu baten gerizpean, Urrelur mineral eta fosilen museoa, eta azkenik, Tourseko San Martin parrokia, egurrez egindako gainga bikainak dituena.

Urolako Bide Berdetik itzul gaitezke, oro har ibaiaren ondotik igarotzen den bidea. Urolako burdinbidea 1926an inauguratu zuten eta 1988. urtera arte egon zen martxan. Zumarragatik abiatu eta Zumaiaiko porturaino iristen zen, eta XX. mendean Gipuzkoan eraikitako azken burdinbidea izan zen.



Zumarraga: Udaletxea - Ayuntamiento / Legazpi monumentoa - Monumento a Legazpi

cuesta, encontraremos la casa-palacio Areizaga, también llamada “Baroikoa”, que conserva en su fachada los escudos familiares. Continuando hacia arriba, nos situaremos al comienzo de la calle Iparragirre, inicio del casco medieval de Urretxu, donde se ubica la casa donde nació el ilustre bardo, Jose Maria Iparraguirre, autor del Gernikako Arbola (en 2020 se cumple el bicentenario de su nacimiento). Un poco más adelante, se sitúa ya en la plaza, el Palacio Corral – Ipeñarrieta, actual ayuntamiento, la estatua de Iparragirre al abrigo de un roble retoño del de Gernika, el museo de minerales y fósiles Urrelur, y finalmente la parroquia de San Martín de Tours, de magnífico interior, donde destacan sus bóvedas de madera.

El regreso lo podemos hacer por la Vía Verde del Urola, que transcurre en general junto al río. El ferrocarril del Urola fue inaugurado en 1926 y funcionó hasta 1988. Partía de Zumarraga y llegaba hasta el puerto de Zumaia, y fue el último ferrocarril construido en Gipuzkoa en el siglo XX.

6 ZUMARRAGA-URRETXU

HERRI BARRUKO IBILBIDEA / RUTA URBANA



Urretxu: Gernikako arbola plaza



Urretxu: San Martin de Tours - Iparragirre: Monumentua - Monumento



Urretxu - Alde zaharra / Parte vieja de Urretxu



UROLA GARAICO TURISMO BULEGOA
(Antio - Zumarraga)
OFICINA DE TURISMO DE UROLA GARAIA
943 72 20 42
turismobulegoa@urolagaraia.com
www.urolagaraia.com

UROLA GARAIA
SERENDIPÍA



EUSKADI
BASQUE COUNTRY

#Basquexperience